

1. ARIKETA

A, SA enpresak X0/06/01ean ondorengo baldintzak dituen 10 bono igorri ditu:

- Balio Nominala (BN)= 1.000€; Jaulkipen Balioa (JB)= 950€ eta Errenboltso Balioa (EB)= 1.100€
- Transakzio eta formalizazio gastuak: 10€/tituloko; Epemuga= X2/07/01
- Interes tasa urteko %5, urtero ordaintzen da urte bakoitzeko uztailaren 1ean.

Harpidetza epea bukatu ondoren (ekainaren 1etik uztailaren 1era), tituluen %50 harpidetu egin zen eta gainontzekoak baliogabetu. Despoltsapena egiteko data: X0/07/01.

✓ Informazio gehigarria:

Interes tasa efektiboa: %13,92, kostu amortizatuaren ondorengo emaitzak lortuz:

Data	Hasierako Balioa	Sortutako interesak	Interes Implizituak	Ordainketa esplizituak	Printzipalaren ordainketak	Kostu amortizatua
X0	4.650	323,67	198,67	0	0	4.848,67
X1	4.848,67	675	425	250	0	5.273,67
X2	5.273,67	351,53	226,53	250	5.500	0
Guztira		1.350	850	500		

ESKATZEN DENA: Jesapenarekin zerikusia duten idazpenak (jaulkipenetik epemugara arte).

2. ARIKETA – O, S.A.

O, SA enpresak X0/06/01ean ondorengo baldintzak dituen 10 bono igorri ditu:

- Balio Nominala (BN)= 1.000€; Jaulkipen Balioa (JB)= 950€ eta Errenboltso Balioa (EB)= 1.100€
- Transakzio eta formalizazio gastuak: 10€/tituloko; Epemuga= X2/07/01
- Interes tasa urteko %5, urtero ordaintzen da urte bakoitzeko uztailaren 1ean.

Harpidetza epea bukatu ondoren (ekainaren 1etik uztailaren 1era), tituluen %100 harpidetu eta despoltsatu egin zen. Despoltsapena egiteko data: X0/07/01.

Harpidetza baldintzetan ondorengo adierazten zen: bonuen %60 urte batera amortizatuko zela eta gainontzekoa bi urtera.

ESKATZEN DENA: Jesapenarekin zerikusia duten idazpenak (jaulkipenetik epemugara arte).

3. ARIKETA

TRETA, SA enpresak X1/01/01ean 20.000 obligazioko jesapena jaulkitzen du. Jesapenaren datuak:

- Balio Nominala 10€/tit; Jaulkipen balioarekin eta errenboltso balioarekin bat etorri.
- Interes tasa: %; urte bukaera bakoitzean ordainduko dena (urte bakoitzeko abenduaren 31n).
- Epea: 4 urte; baina urte bakoitzean 10.000 titulu amortizatuko dira.
- Jaulkipenaren gastuak: 11.000€; jaulkipena egin duen sozietatearen kontura.
- Harpidetza eta despoltsapen datak bat datoz.

Bestalde, X3/07/01ean, burtsan 2.000 titulu eskuratzen ditu, %98an.

✓ Informazio gehigarria:

Interes tasa efektiboa: %7,12, kostu amortizatuaren ondorengo emaitzak lortuz:

Urteak	Interes efektiboa	Interes Implizituak	Interes esplizituak	Errenboltso balioan amortizazioa	Kostu amortizatua
01-01-X1				-	189.000
31-12-X1	13.461,34	3.461,34	10.000	-	192.461,33 <i>20.000 obligaziorena</i>
31-12-X2	13.707,86	3.707,86	10.000	100.000	96.169,19 <i>10.000 obligaziorena</i>
31-12-X3	6.849,55	1.849,55 <i>10.000 obligaziorena</i>	5.000	-	98.018,74
31-12-X4	6.981,3	1.981,3	5.000	100.000	0,00

ESKATZEN DENA:

1- Jesapenarekin zerikusia duten **X1 ekitaldiko** idazpen guztiak:

- Jaulkipena, harpidetza eta despoltsapena urtarilaren 1ean
- Sortutako interes esplizituak eta implizituak, eta esplizituen ordainketa.

2- Burtsan eskuratzen diren 2.000 obligazioen erosketari buruzko eragiketak kontabilizatu (interes sortzapena eta erosketak).

OHARRA: 2.000 obligazio hauei dagokien 6 hilabeteko interes implizituak, X3 ekitaldi hasieratik igarotako epean linealki kalkulatu dira, taulan adierazitako interes implizituak kontuan hartuz.

4. ARIKETA

BIZIPOZ, S.A. enpresak makina berria behar du eta mailegu bat eskatzea erabaki du. Lortu duen maileguaren ezaugarriak hauek dira:

- Data: X0/07/01
- Nominala: 61.000€
- Amortizazioa: sistema frantsesa (ordaindu beharreko kuotak konstanteak)
- Epea: 5 urte
- Hasierako gastuak: 1.000€
- Urteko interes tasa konstantea %3.5. Interesak urte bukaeran ordaintzen dira.

Epea	Interes tasa	Ordainketa	Interesak	Amortizazioa	Amortizatutako kapitala	Geratzen den Zorra
X0/07/01						60.000,00
X1/07/01	%3,50	13.288,88	2.100,00	11.188,88	11.188,88	48.811,12
X2/07/01	%3,50	13.288,88	1.708,39	11.580,49	22.769,38	37.230,62
X3/07/01	%3,50	13.288,88	1.303,07	11.985,81	34.755,19	25.244,81
X4/07/01	%3,50	13.288,88	883,57	12.405,31	47.160,50	12.839,50
X5/07/01	%3,50	13.288,88	449,38	12.839,50	60.000,00	0,00

ESKATZEN DA: Mailegua eskatzen denetik X1/07/01 arteko eragiketak kontabilizatu.